

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

45/2025 Foru Agindua, otsailaren 12koa, zeinaren bidez adierazten baita iraungi dela Nafarreteko herriarena den (Urrunagako Administrazio Batzarra) eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" mendi publikoaren mugaketa eta mugarritze prozedura

Mendi Zerbitzuak jakinarazi duenez, Diputatuen Kontseiluak 1995eko abuztuaren 16an hartutako 645/1995 Erabakiaren bidez, Nafarreteko herriarena (Urrunagako Administrazio Batzarra) den eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" izeneko mendi publikoa mugaketa egoeran zegoela adierazi zen. Erabaki hori 1995eko irailaren 1eko ALHAOn (104. zk.) argitaratu zen, eta, mendi hori mugatzeko eta mugarritzeko prozedurari hasiera ematearekin batera, interesdun ezagun fisiko eta juridikoei jakinarazi zitzaien, hartu agiridun gutun baten bidez.

Neurketa lanak egun hauetan egin ziren: 2000ko apirilaren 4an eta 17an, maiatzaren 5ean, 19an, 23an eta 24an, abuztuaren 24an eta irailaren 28an eta 2004ko martxoaren 23an, eta hala jasotzen da horri buruz egindako aktetan. Neurketa eta mugarritze lanak amaituta, ALHAOn argitaratu zen 2004ko maiatzaren 17an (55. zk.) mugaketa eta mugarritze espedientea jendaurrean jartzen hasi zela eta erreklamazio aldia ireki zela. Iragarki hori interesdun ezagunei, fisikoak edo juridikoak izan, jakinarazi zitzaien, hartu agiridun gutun baten bidez. Erreklamazio aldi horretan, idatzizko erreklamazio bat aurkeztu zen.

Mugaketa eta mugarritzea ez zen onetsi horretarako ezarritako epearen barruan.

Ondorioz, 2025eko otsailaren 6an, Mendi Zerbitzuak jakinarazi duenez, proposatzen da iraungitzat jotzea Nafarreteko herriarena (Urrunagako Administrazio Batzarra) den eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" izeneko mendi publikoaren mugaketa eta mugarritze prozedura.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta kontuan hartuta zer xedatzen duten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluek eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren dagozkien artikuluek, eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak —Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuaren bidez aldatua— ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.— Adieraztea iraungi dela Nafarreteko herriarena den (Urrunagako Administrazio Batzarra) eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" mendi publikoaren mugaketa eta mugarritze prozedura.

Bigarrena.— Agintzea iraungitako prozedurako egintza independenteek ondorioak izan ditzatela eta egintza horiek gehi daitezela, besteak beste, interesdunek eduki ditzaketan eskubideak egiaztatzeko aurkeztutako agiriak, neurketen aktak, mugaketako plano topografikoak eta aurkeztutako erreklamazioak.

Hirugarrena.— Ebazpen hau prozedurako interesdun guztiei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.— Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez

gero, berraztertzeko errekurtsua, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuari, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezarritakoarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 12a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA